

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

OGASUN SAILA

Sei hileko emakiden ordainketaren errolda jendaurrean jartzea – 2020ko lehen seihilekoa

Zergen eta zuzenbide publikoko bestelako diru-sarrera lokalen kudeaketa, bilketa eta ikuskaritzari buruzko ordenantza orokorraren 26.2. artikulua betetze aldera, hamabost egunez egongo da jendaurrean jarrita sei hileko emakiden ordainketaren errolda fiskala –2020ko lehen seihilekoa–, San Martineko udal bulegoetan –Teodoro Dublang Margolariaren kalea, 25 behea–, aztertu eta egokituz jotzen diren alegazioak egiterik izan dadin.

Erroldan jasotako likidazioen berri denei batera emateko funtzioa betetzen du iragarki honek, Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru-arauaren 98.3 artikuluekin ildotik.

Jendaurrean jarrita egongo den erroldan ageri diren likidazioen kontra berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahal izango da, Ogasun Saileko zinegotzi ordezkariari zuzenduta, ordaintzeko borondatezko epean, eta hura bukatzen den egunaren biharamunetik hilabete igaro bitartean.

Ordaintzeko epea 2020ko martxoaren 25etik maiatzaren 25era artekoa da.

Vitoria-Gasteizen, 2020ko otsailaren 14an

Ogasun Saileko zinegotzi ordezkaria
IÑAKI GURTUBAI ARTETXE